



187

ALEA

arabako aldizkaria

ZIBERSEGURTASUNA

**ZIZTU BIZIAN DOAZ
IRUZURRA ETA
DESINFORMAZIOA**

if



Izan
zaitez
ALEAkide



alea.eus/harpidetzak



ALEA 187

2019-03-22 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

ILYA PAVLOV

UNSPLASH

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Zibersegurtasuna, sarean ibiltzen ikasteko.
- 8 **Protagonista.** Javier Martinez, Iruña Okako alkatea.
- 12 **Iritzia.** 'Beldurra', Aintzane Urrutia.
- 12 **Iritzia.** 'Erroma', Cira Crespo.
- 14 **Sarean.** #KlimaAldaketa.
- 15 **Iruditan.** Inauterietako argazki lehiaketa.
- 16 **Gutuna.** 'Euskararen erabilerari oztopoak Eusko Jaurlaritzak'.
- 16 **Gizartea.** Torre berretsi dute UAGAn.
- 18 **Gizartea.** Kezka iturri da airearen kalitatea.
- 20 **Gizartea.** Zuiako ikastetxea, hamar urtez trabatuta.
- 22 **Esanak eta laburrak.**
- 24 **Kultura.** Xabi Bandini musikariari elkarriketa.
- 26 **Kultura.** Gazteen pelikularek bila.
- 27 **Musika.** 'Depedro'. Igor Muñoz.
- 28 **Gure bazterrak.** Santa Cruz del Fierro.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Aintzane Urrutia, Cira Crespo eta Igor Muñoz.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Bolo-bolo dabil iruzurren azoka ziberespazioan

Internet nahiko mundu berria da, eta bertan ibiltzen ikasi beharra dago. Teknologia eguneroko bizitza guztiz erraztu duen modu berean, alde ilunean ari direnek ere aise gauzatzen dituzte haien egitekoak, baina abantaila bat dute: jende gehiena oraindik ez dela ondo egokitu sareak ezarri dituen arau berriei.

Testua: **Juanma Gallego**
Argazkiak: **ALEA / Unsplash**

Gauzak okertzen hasiak dira ziberespazioan, baina oraindik jende gutxi konturatu da horretaz. Mundu fisikoan gerra eta bakea elkar bizi diren modu berean, halaxe gertatzen da ere Interneten. Eta ez dago ezer berririk asmatu beharrik, garai berriei aspaldiko kontuak egokitzea baizik. Gakoa erraztasunean dago: munduko edozein tokitik sakelako telefono baten bitartez munduaren beste puntara mezu bat edo irudi bat bidaltzea izugarri erraza den modu berean, erosotasun berdinarekin bidera daitezke iruzurra, desinformazioa edo, zuzenean, engainua. Hortik harago, arazorik handiena da ziberespazioa eta errealtate fisikoa gero eta gehiago elkar lotuta daudela: kode informatiko gisa baino existitzen den bit sorta batek eragin dezake instalazio nuklear bat bertan behera uztea, hiri bat argindarrik gabe uztea edota munduan inoiz izan ez den armadarik handienaren komandantea izango dena hauteskundeetan garaile ateratzea. Iranen, Ukrainan edo Ameriketako Estatu Batuetan izandako gertakariak aipatzearren.

"Badira errealtatea ikusi nahi ez dutenak, eta txori eta tximeleten mundu batean bizitzea nahiago dutenak", dio Javier Valencia Martinez de Antoñana ingeniariak. "Horretarako eskubide osoa dute, noski, baina bagara ere uste dugunok zerbait hobeagoa merezi dugula". Gertutik ezagutzen ditu Valenciak Interneteko estoldak. Izan ere, hein handi batean, hori da bere lan esparrua. Zibersegurtasunean eta, bereziki, ziberinteligentzian aritzen da Valencia CV2Group enpresan.



Zirkulazioan jarri baino lehenago, software kaltegarria eta bidean egon daitezkeen erasoak atzematea da bere lana. Ez da lan esparru erosoak, eta ez da mugatzen kode soilera. Inteligentziaren munduan ohikoak diren teknikak baliatzen ditu sarri. Infiltrazioak eta HUMINT teknikak; hau da, jendearekin aritzea. Landa lana. Espioitza. "Zibersegurtasunean aritzen diren enpresak gu kontratatzen gaituzte, lan hau delikatua baita. Adibidez, banku bati interesa dakiokoe jakitea non saltzean ari diren CVC kodea duten kreditu txartela klonatuak, edo ingeniari-tza enpresa bat non ari den mugitzen bereak diren planoak".

Horretarako, noski, botak zikindu beharra dago. Ohiko lan esparrua du web iluna edo Dark Web gisa ezagutzen dena. Bilatzaileek arakatzen ez duten eremua da hori. "Hala izanik, web iluna leku aproposa da mota guztietako informazioa mugitzeko. Produktuak eta zerbitzuak saltzeko, baita delitu-material direnak ere". Valencian esanetan, web iluna ez da uste bezain zabala, baina bada oso ingurune itxia, "sarbide konplexua" duena, eta "informazio konfidentzial" asko mugitzen duena.

Interneten alde iluna edozein delitu prestatzeko toki egokiena izanik, web argia datuen benetako "festa" bat da. Inteligentziaren munduan OSINT deritzo horri: *open source intelligence*, edo jatorri libreko intelgentzia. Edozeinen esku dagoena, hain zuzen. Erraza da edozein laguni buruzko profil bat osatzea, eta hori, gero eta gehiago, modu automatizatuan egiten da, gainera. Sareetan zabalduak argazkia, atari horretan emandako datua, eskubide urraketa

Erraza da orain mezu bat munduaren beste puntara bideratzea: manipulazioa eta iruzurra ere aise zabaltzen dira.



Zibersegurtasunaren mundua gertutik ezagutzen du Javier Valenciak. Bereziki ziberinteligentzian aritzen da.

"ERREALITATEA IKUSI NAHI EZ DUTENAK BADIRA; TXORI ETA TXIMELETEN MUNDU BATEAN BIZI DIRA"

"ENPRESA HANDI BATEN SISTEMETAN SARTZEKO, KATE-BEGIRIK AHULENA BILATZEN DUTE"

JAVIER VALENCIA

hori salatzeko emandako sinadura... horrek guztiak batu egiten du. "Jende gehienak hau oso argi ez duela iruditzen zait", azaldu du Valenciak. "Sarean jartzen dugun informazio pertsonala publiko bihurtzen da, eta batzuetan, gainera, informazio sentsiblea zabaltzen dugu lau haizeetara".

Ez da paranoia hutsa. Web ilunean dabilzanek hortik elikatzen dute makinaria. "Askotan, enpresa handi baten sistemetan sartzeko, kate-begirik ahulena bilatzen dute". Langile baten ordenagailuari sarbidea izanda, errazagoak dira

hortik aurrera datozen ekintzak burutzea. Adibidez, identitatea ordezteka iruzurra egiteko. Iaz Ertzaintzak 12 salaketa jaso zituen Araban. *Modus operandi* berdina erabili zuten iruzurretan. 900.000 euroko galerak izan ziren. Erasotzaileak enpresako posta elektronikoko esanguratsu bati sarrera lortzen du, eta bertatik egin ohi diren diru mugimenduen jarraipena egiten du. Behin ordainketa motak ezagututa, identitatea ordeztu eta zor zaion dirua beste kontu korrante batera bidaltzea eskatzen du, kontua aldatu duela esanez. Diputazioak berak izan zuen iaz halako iruzur bat, 115.000 eurokoa.

Kontratu mamitsuak

Iruzurraz harago, Araba bezalako lurralde batean bestelako arriskuak izateko aukerarik al dago? Baiezkoan da Valencia. "Hemengo enpresa asko multinazional handien hornitzaile dira. Horregatik, hackerrek goiko enpresa horiengana iristeko tresna modura erabili ahal dituzte". Horrez gain, badira bete-betea hackerren jomuga izan daitezkeenak. "Esaterako, Aernnova bezalako enpresa batek oso kontratu mamitsuak egiten ditu munduan zehar, eta horiek oso erakargarriak dira industria-espioientzat". Enpresa handi horietan zibersegurtasunari garrantzia handia ematen diotela dio, eta, zenbaitetan, legeak kontu handiz ibiltzera behartzen ditu. "Haien izaera dela eta, estatuaren azpiegitura kritikoen legearen baitan sartzen dira, eta araudi hori bete behar dute". Enpresa txiki eta ertainetan iruzurra eta estortsioa dira sarrien izaten den arazoa. "*Ransomware*-a baliatzen dute. *Bug* edo zomorro bat sartzen dizute, eta disko gogorrean dagoen informazioa bahituta geratzen da. Desen-kriptatu nahi baduzu, ordaindu behar duzu, bitcoin-etan".

Segurtasunari dagokion arloa izanda, erabiltzen ari al da kontu hau guztia beldurra zabaltzeko? Ezetz erantzun du adituak, irmo. "Otsoa hor dago, eta lanean ari da, hori ikusi nahi ez badugu ere. Otsoaren aurrean ni noraino naizen erakargarria, horren arabera hartu beharko ditut neurriak". Batez ere diru bila ari den otso bat dirudi horrek. Hortaz, gure artean bederen, kezkarako arrazoi gutxi. Kontsolamendu eskasa, bada! Baina diruaz harago doa kontua.

Eragin politikoa sortu nahi duten otsoak badirelako ere. Ideien merkatu oparoa, hain zuzen. Sakeleko *ispilu beltzari* begira etengabea ari garen honetan, inoiz baino errazagoa da haserrearen gasolina nahieran eta norabide jakin batean piztuko duen pospoloa botatzea.

San Petersburgo hiriko Savushkina kalearen 55. zenbakian atzeman zen desinformazio gunea da agian ezagunena, baina adibideak egunero izaten dira. 2015eko azarotik, Europako Batasunaren ekimenez sortutako EUvsDisinfo erakundeak manipulaziori lotutako 5.060 auzi azaleratu ditu. Urruneko kontuak dirudite, baina gure artean horrelako teknikak ere erabiltzen direla azaldu du Valenciak. Hauteskundeak hurbiltzen diren unean bereziki kontuz ibiltzeko beharra azpimarratu du. "Badira honetan gardenak diren alderdiak, baina beste batzuk benetako eragin-ekintzak lantzen ari dira". Nola bereizi bada zilegizko propaganda politikoa eta desinformazioa? "Desinformazioaren eskuliburuetan aipatzen diren teknika berdinak erabiltzen dituztelako. Adibidez, profil faltsuak sortzen dituzte, eta, horien bitartez, modu automatikoan informazioa zabaltzen dute". Halakorik badago Araban? Baietz dio Valenciak, baina publikoki nahiago du izenik ez eman. "Badira aspaldiko teknikak direnak, baina badira ere modernoagoak: adibidez, adimen artifiziala erabilia, zure intereseko taldeetan erabiltzen diren hitzak atzematea, gero horiek zure diskurtso politikoan txertatzeko". Horrekin guztiarekin, gero eta zailagoa da bereiztea egia ala gezurra. "Informazio interesatuaren etengabeko euri bat sortzen dute, eta, azkenean, euri horrek busti egingo zaitu". ■■■

BCSC, zibersegurtasunaz arduratzen den euskal erakundea

BCSC Basque Cybersecurity Centre da zibersegurtasunaren alorrean aritzeko Jaurilaritzaren ekimenez sortutako euskal erakundea. 2017ko urriaren 6an hasita, ALEA zazpi aldiz saiatu da erreportaje hau egiteko BCSCren ekarpena jasotzen, hiru mintzaide desberdinekin. Posta elektronikoz bidalitako galdetegi bat bueltan jasotzeko aukera baino ez zaio eskaini ALEAri. Aukera hori kalitatezko kazetaritzaren bermea ez dela iritzita, ezetz esan dio ALEAk. Horregatik, erreportaje honetan arlo pribatuaren ikuspuntua baino ez da azaldu.



Basque Cybersecurity Centre-k Miñaoko parkean du egoitza nagusia. SPRI

"Akordioak dira benetako giharra, ez zinegotzi kopurua"

JAVIER MARTINEZ IRUÑA OKAKO ALKATEA (PSE)

Hamabost urte bete ditu Javier Martinezek alkate modura, eta horretarako osagai garrantzitsuena ezberdinen arteko akordioak direla uste du; proiektu estrategikoak aurrera eraman ahal izateko "gutxienez bi legealdi" iraungo duten adostasunak bilatzeko lan egin behar dela dio, eta horretan Bilbo du eredu.

Testua eta argazkiak: **Anakoz Amenabar**

Zinegotzi moduan aritu eta gero, ia konturatu gabe hartu zuen Iruña Okako aginte makila Javier Martinezek (Langraiz Oka, 1967). Bederatzi zinegotzi dituen Udalean, soilik birekin eskuratu zuen alkatetza. Hamabost urte igaro dira ordutik, eta hurrengo legealdian lanean jarraitzeko aurkeztuko du bere burua. Udalerriaren irudia "aldatu" eta "lotarako-herri" ez bilakatzea ditu lehentasun nagusiak.

Hainbeste urte alkatetzan jarraitzeko, zeintzuk dira beharrezko osagaiak?

Akordioak lortzeko gaitasuna izatea, eta horretarako malgutasuna izatea beharrezkoa da. Estrategikoak diren proiektuak aurrera atera ahal izateko, akordioak ezinbestekoak dira, epe ertain batera egitasmoak jarraitzea bermatuko duten akordioak. Guk alderdi guztiekin izan ditugu akordioak, eta pozik gaude; horrek ematen dio udal bati beharrezko giharra, ez zinegotzi kopuruak. Osagai nagusia hori dela uste dut. Gasteizen ezin dira estrategikoak diren proiektuak aurrera atera, gehiengorik ez dagoelako eta proiektu jakinetan ados jartzeko borondaterik ere ez. Bilbo, aldiz, horretan eredu dela uste dut;

bakoitzak bere ideologia duen arren, egitasmo ezinbesteko batzuetan eta hiriaren norabidea adosteko gaitetan, bat egiteko ahalegina egin dute. **Zer lehentasun duzu hurrengo legealdirako?**

Ez dugu osasun zentro bat, eta hori niretzat kezka nagusietako bat da. Egin dudak kudeaketan orban bat da niretzat. Gizarte etxean dugu gaur egun osasun zentroa, baina txiki geratu da, eta ez ditu beharrezko baldintzak betetzen. Arratsaldez mediku bat izatea lortu genuen, sistema berriak jarri behar dira martxan, eta egungo gunean ez dago horretarako aukerarik; esku-ohe bat ere ez da sartzen han. Osakidetzaren borondaterik gabe, halere, guk ezingo dugu ezer egin.

Errota zaharra lehengoratu zenuten, baina hutsik jarraitzen du...

Duela urte batzuk Langraiz Oka erdiguneko lehengoratzea hasi genuen, eta mugarri garrantzitsua izan zen Errota. Eusko Jaurlaritzaren laguntzei esker erosi ahal izan genuen esku pribatuetan zegoen eraikina; zaharberritu eta norabide jakin batean joatea lortu genuen. Zerbitzu turistiko batera bidean pausoak eman nahi genituen, ostalaritza espazio bat jartzeko, baina URA agentziarekin arazoak izan genituen



Javier Martinez, Langraiz Okako errota zaharraren ondoko parkean.

eta ez zen proiektu hori aurrera atera. Udalak beste proiektu bat onartu zuen, kultura zentro bat egiteko, baina denak balio du dirua... Udaletxe txiki bat gara, 3,2 milioi euroko aurrekontuarekin, eta diru-laguntzak ekarriko dituzten egitasmoak proposatu behar ditugu. Baliabideak erakarriko dituen egitasmo bat behar dugu. Ondoan zentro iktiologiko bat izango dugu, ur kontinentalen inguruko ikerketa zentro bat, eta, beharbada, horrekin lotuta joan daiteke egitasmo berria. **Hainbat kritika heldu dira Garabo auzotik, ingurua ahaztuta dagoela eta.**

Jatorria 1998an duen arazo bat da. Hainbat etxebizitza egin ziren han, zentral hidroelektriko baten inguruan. Orduan ez zen herrigune moduan izendatu eta linbo batean geratu zen. Ordenazio barruan baleude moduan saldu zuen eraikuntza-enpresa batek, eta ez zen hala; beharbada akats bat egin zelako, ordenaziotik kanpo jarraitzen zuten. Eraikuntzaren booma hasita, hainbat lagunek etxea erosi zuten arrazoizko prezio bat zutelako. Udaletik erantzun bat ematen saiatu zen ordenazio plan batekin, baina URAk atzera bota zuen, uholde gunean zelako. Orain, plan orokor berriarekin, erantzuna

eman nahi diogu. "Barreiatutako herrigune" moduan izendatu nahi dugu, horrek hainbat ekintza aurrera eramateko aukera ematen digulako, eta bermatu ahal izango dugulako hango bizilagunek merezi dituzten zerbitzuak izatea, eta, era berean, haiek urbanizazioaren kargetan parte hartzea.

Langraizeko kartzela zaharra herriarentzat izan behar zela iragarri zenuen garai batean.

Hala da. Politikan garrantzitsuena zintzoa izatea da, eta argi esango dizut. Espainiako Espetxe Erakundearekin negoziatzen ibili ginenean, gure asmoa eta aurreikusten genuena Langraizen zentro bakar bat zen. Berria zabaltzearekin batera, asmoa zaharra ixtea zen. Zentro berri duin bat eraikitzeke kolaboratu genuen, kartzela zaharrak hori ez zuelako betetzen. Udalerria kartzelagatik ez ezagutzea izan da, gainera, nire konpromisoetako bat beti. Langraizekoak ginela esaten genuenean, erantzuna "barrukoa ala kanpokoa?" izaten zelako. Konpromisoa hori zen. Espetxe Erakundeak hirietan gizarte zentroak jartzeko politika bati ekin zion, eta Gasteizen orube batzuk erosi zituen horretarako. Baina orduko Gasteizko Udaleko oposizioarengatik ez



Javier Martinez, Iruña Okako udaletxean.

"ESPETXE ZAHARRA KARTZELARI LOTUTAKO ERAIKINA IZAN EZ DADIN LANEAN JARRAITUKO DUGU"

"HERRIAK BIZITZA GEHIAGO IZATEA NAHIKO NUKE; LOTARAKO HERRIA IZATEA ARRISKUTSUA DA"

"PEDRO SANCHEZ ONDO EGITEN ARI DELA USTE DUT, SENTSIBILITATEEN ARTEKO OREKA BILA"

zuten ireki. Langraiz Okako kartzelako alderik berriena erabili zuten horretarako. Guk, hala ere, jarraituko dugu lanean espetxe zaharra kartzelari lotutako eraikina izan ez dadin.

Arazo bat da herriarentzat?

Inolaz ere. Halako gune bat etxe ondoan jarri behar dutela diotenean, sekulako istiluak sortzen dira. Ni alkate naizenetik, ordea, ez dugu inolako ustekabekorik izan. Hala ere, gaur egun gizarteratzeko zentro txikien aldeko apustua egiten da, eta logikoena litzateke lan lekutik gertuen dauden zentroan egotea; aldiz, zentroan dauden %70 Bizkaitik etortzen dira.

Lau urte barru, nola irudikatzen duzu Iruña Oka?

Udalerriak bizitza gehiago izatea nahiko nuke, eta askotan ematen zaion irudi txarra aldatzea. Lotarako herria izatea arriskutsua da, herritik kanpo egiten duzulako bizitza, eta halabeharrez herria itotzen duzulako; uste dut hemen joera horri buelta ematea lortu dugula, baina oraindik aldaketa behar da. Eta ari gara, Santa Catalinako lorategi botanikoarekin, kirol jardurekin, asteburuko gastronomia eskaintzarekin... Alkate izaten jarraitzen badut, hori izango da lehentasunetako bat.

Udal hauteskundeen aurretik datoz Espainiakoak.

Ultraeskuinak izan dezakeen gorakadak kezkatzen zaitu?

Bai, noski. PSOE ondo egiten ari dela uste dut, herritarrekin lotura berreskuratzen; gizarte aurrerakoi baten alde, pertsonen eskubideak lehenetsiko dituen. Baina, dudarik gabe, kezka dut; VOX-ek baino gehiago kezkatzen nau eskuineko alderdi nagusienak berarekin batera joaten ari direla. Ez gaitezen engaina, VOX eta Ciudadanos-en aurretik, boto horiek PPra zihoazen, eskuineko politika nolabait esateagatik "moderatu" batera. Orain, ordea, kezkatzekoa da Rajoy baino atzerakoiagoak daudela agintean.

Ezkerra, berriz, nola dago Espainia mailan?

Podemosek arazoak dituela ikusten ari gara, eta normala da, politikan bost urte ez direlako ezer; euren artean arazoak daude alderdia sendotu eta trinkotzeko. Eta PSOEn, berriz, esperientzia handia dugu, kudeaketan esperientzia, baina ez dut ukatuko gure etxean ere arazoak daudenik. Alderdi barruan oso ikuspegi desberdinak daude, eta askotan horrek kontzeptu batzuetan korapilatzeraz erabaten gaitu. Baina eztabaida ere aberasgarria da, eta Sanchez ondo egiten ari dela uste dut, sentsibiltate desberdinen arteko oreka bilatzen. ■■■

SA-KA-TU BO-TOI BAT, E-TA LIS-TO

Orain, **Euskaltelen** 4K Dekoarekin,
zuzenean ikus ditzakezu telebistan
Netflixeko zure telesailik
gogokoena.

4K DEKOA



LA
**CASA
DE LAS
FLORES**

IKUSTEKO PREST DITUZU
KARTULU GUZTIAK | **NETFLIX**

euskaltel.eus/netflix | Dendak | 1717



euskaltel

Aldatu, 4K deskodetzailerekin, telebista ikusteko zure era. Eskuragai Euskaltelen Premium Estro+ TBA dutenentzat. Netflix-eko harpidetza ez dago sartuta. 4K deskodetzaileraren bidez edo Euskaltelen Bezeroaren Gunearen bidez harpidetu zaitezke. Ultra HD 4K izateko elementu hauen mende dago: harpidetza-mota, Interneteko zerbitzua, gailuaren funtzionaltasuna eta edukien eskuragarritasuna. www.netflix.com/TermsOfUse

Babesle teknologikoa:



Beldurra



AINTZANE URRUTIA

INFORMATIKARIA

Abiatze momenturako gutxiago falta da, gutxiago... Zenbat diren kontatu ez ditudan beste lagunekin batera, zulo txiki eta zikin honetan izkutatuta, irrikaz itxaroten dugun hori lortzeko momentua.

Askatasun momentua, aukeratu ez dugun mundu honetatik ihes egiteko momentua, txikitandik ezagutu ditugun gose eta miserietatik hanka egiteko momentua.

Zertan ibiliko ote da momentu honetan aita...

Ama, ziurrenik, nire anaia gazteei errietan arituko zatzaie, atzo, kontrabando eta borondate oneko turistaren batek emandako limosnarekin lortu zuen jatekoa janarazi nahian.

Ez nuen nire arraza aukeratu, ezta nire ikurriña ere, ezta nire pobrezia eta zoritxarra. Nork daki guzti hau Jainko batek aukeraturik jaso dugun edo patua izan den, edota... zoritxarreko deskuidua besterik ez.

Beldur naiz, beldurra daukat, beldur handia... denok daukagu beldurra baina ez dugu erakutsi nahi. Burumakur eta pentsakor, orduei aurrera egiten uzten diegu. Badirudi, baina, denbora adarra jotzen hasi zaigula, ez duela aurrera egiten.

Ordu batzuk barru ez naiz gehiago Hayat izango, zenbaki bat izango naiz; eta nire izen berria, PAPERIK GABEKOA.

Ordua da, azkar, azkar... arnasa hartzeari ere beldurra diogula... bagoaz! Ez dut inoiz horrenbeste beldur sentitu baina... egin BEHARRA daukat! Nire aitagatik, ahora eramatekoa izan genezan lanean buru-belarri jarduten zelako! Nire amagatik, jasandako sufrimendu eta isuritako malkoengatik. Nire arreba Fatimagatik, ikasi nahi duelako! Eta Hasan txikiarengatik, bere haur-inozentziak etorkizun hobearekin merezi duelako!

Hemendik gutxira itsasoratuko gara HERIOTZA izena daraman txalupa honetan, nolako ironia, heriotzak bizitza berri batetara garamatza. Nik ITXAROPENA deritzot.

Bada, hartu dugu paturanzko norabidea, itxaropenerantz, gure ametsetarantz, zalantza betetako etorkizunerantz. Orduak daramatzagu heriotz txalupa honetan pilaturik eta ez dakit helburura iritsiko naizen. Baliteke nire patuak itsasoaren hondora eramatea, baina saiatu ostean izango da. Saiakeran hiltzen banaiz, nere indar guztiekin saiatu ostean izango da, mundu infinitu honetan lur pusketa bat bilatu ostean izango da, nire oinak kokatu eta sustraitzeko saiakera egin ostean. Niretzat eta nire ingurukoentzat, etorkizun hobeago bat bilatu nahian izango da!

Aita, ama... maite zaituztet! Egin nigatik otoitz! Nire askatasuna, zuen etorkizuna da! ■■■

**HEMENDIK GUTXIRA
ITSASORATUKO GARA
'HERIOTZA' IZENA
DARAMAN TXALUPA
HONETAN**

Erroma



CIRA CRESPO

HISTORIALARIA

Erromatarrek ondare kultural erraldoia utzi ziguten. Europa osoa eta Mediterraneoko kosta guztia marmolezko hondakinez josita daude. Kultura erromatarra azaltzen duten hitz asko ere kontserbatzen dira, denak latinez. Kultur-hondar hauei esker, Erromaren irudi bat eraiki dugu: hiritarren inperio bat, marmolez egindakoa eta latinez pentsatzen omen zuena. Oso kultura homogeneoa eta aberatsa. Baina, zorionez, zikinkeriak eta salbuespenak oso gaizki ezkututzen dira, horretarako ahalegin handia egin behar da-eta. Horregatik, batzuetan, errealitate ezberdinak (konplexuagoak eta mingarriagoak) herabeki agertzen dira. Izotzmendiaren tontorra dira.

Ovidio, adibidez, poeta handia zen, latinaren maitalea. Idatzi eskandalagarri batzuk egin eta gero, Augustok erbestera bidali zuen. Hain zuzen ere, Tomis hirira, Pontoko hiriburura, Itsaso Beltzaren balterrean. Egonaldi honi esker, gutun aipagarriak idatzi zituen, *Pontikak* izenekoak; hauen bidez bueltatzeko baimena lortu nahi zuen, eta horregatik bere egoera penagarria azaldu behar zuen. Hari esker dakigu Tomis hirian, nahiz eta itxuraz guztiz erromanizatuta egon, ia inoiz ez zela latinez hitz egiten. Ovidioarentzat infernuaren parekoa zen. Gutunetan herrimina eta bere hizkuntzarekiko maitasuna agertzen da, eta beste hizkuntzarenganako mespretxua. Marmolaren azpian, hegemonia kulturalaren azpian, errealitate ezberdin asko zeuden; herri zapaldu asko zeuden, ia batek ere ezin zuen erresistitu, eta gaur egun gutxi batzuk baino ez dira ezagutzen.

Egun hauean, bada mundu guztiak aipatzen duen film bat, *Roma* izenekoak. Printzipioz, ez dauka zerikusirik antzinako Erromarekin... baina baietz esango nuke. Hemen ere, hegemonikoa ez den errealitate bat agertzen da. Zuzendariak film intimoa egin omen du. Txikitan eduki zuen neskamearen argazki atsegina da. Eta, kasualitatez edo ez, Ovidiok bezala, beste kultura bat islatzen du, beste hizkuntza bat, Mexikoren bihotzean. Cleo, protagonista, mixteka da. 2000 urtean 446.236 hitzun zituen mixtekak. Eskubide linguistiko gabeko 446.236 herritar. Horregatik, Cleo zapalkuntza kolonialaren lekukoa da, besteak beste. Eta, bere hitz arrotzen bitartez, errealitatearen konplexutasunaz jabetzen gara.

Atzo eta gaur, homogeneotasun kulturalak estalitako bizitzak daude. Estatu zapaltzaileen azpian herriak daude. Erresistitzen duten herriak. Idatzita ageri ez diren herriak. Amore ematen ez duten herriak. Izotzmendiaren tontorrak. ■■■

**HERRI ZAPALDU ASKO
ZEUDEN, IA BATEK ERE
EZIN IZAN ZUEN
ERRESISTITU, ETA
GUTXI EZAGUTZEN DIRA**

SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#KlimaAldaketa

Klima aldaketaren aurka Europa iparraldean hasitako ikasle mugimendua Euskal Herrira iritsi da. @GretaThunberg nerabe suediarrek hasitako mugimenduari jarraipena eman nahi zaio. 16 urteko gaztea klima aldaketaren kontrako borrokaren ikur bilakatu da, Suediako Parlamentuaren aurrean egin dituen protesten harira. Haren ereduari jarraitu diote munduko milaka ikaslek; 270 herrialdetan egin dituzte protestak. *Friday for the future* –ostirala etorkizunaren alde– lelopean, greba eta mobilizazioak egin zituzten iragan martxoaren 15ean Gasteizen. ■



MIKEL NOVAL
@MikelNoval

Grande America hondoratu da. 2.000 auto eta 365 kontainer (45 produktu arrisksuekin) zituen. Erregai isurketak 20 km-ko luzera du. Aurretik, gutxienez 35 arazo tekniko izan ditu. Itsaso garraio *low costen* ondorioa. Sistema aldatu, ez klima!



OTSOGORRIGAINA
@Otsogorrigaina1

Klima-aldaketaren aurkako mobilizazioak oso jendetsuak izan dira Ipar Euskal Herrian, baina Hegoaldean oso eskasak... Hemen oraindik kontzientzia ekologiko gehiago falta zaigu, hobeto Iparraldetik ikasiko bagenu.



EDORTA AMURUA
@makilipurdi

Klima aldaketaren aurkako manifestan plastikozko pankartak erabiltzea... Ez dakit ba... #Inkoherentziak



HEGO
@_Hego_

Milaka kilometrora egindako arropa jantziz eta milaka kilometrora ekoiztutako janaria jenez, klima aldaketaren aurka manifestatzen diren gazteak... Munduko 15 merkantzia-ontzi handienek 760 milioi kotxe adina kutsatzen dute.



MAITE G.
@goraxaho

Klima aldaketa sintoma da. Sistema kapitalista, gaixotasuna.



UNAI PASCUAL
@unaiapasku

#M15 ikasleen nazioarteko mobilizazioan izan naiz nere bi semeekin. Harro Gasteizko gazteek erakutsitako indarraz eta gogoaz! Gora zuek #KlimaAldaketa #FridaysForFuture



IRUDITAN

Inauterietako argazki onenak

Beste urte batez, inauterietako argazki lehiaketa antolatu du ALEAk. Aurtengo edizioak berrikuntza nabarmena izan du, bi sari banatu direlako: erabiltzaileen saria eta epaimahaiaren saria. Epaimahaiak jasotako irudi guztien artean, Asier Lopez de Luzuriagaren *Irakasle zorua* izeneko argazkia aukeratu du; HP lc100w markako Gopro bideo kamera bat irabazi du. Erabiltzaileen saria, berriz, Izaskun Agirreren *Addams Family*-rentzat izan da; Nafarroako Erriberako produktuez osatutako Errigora saski eder bat jasoko du. ■

Epaimahaiaren saria (goiko irudia):
Asier Lopez de Luzuriagaren *Irakasle zorua*.

Erabiltzaileen saria (beheko irudia):
Izaskun Agirreren *Addams Family*.



**Bidali zure argazkiak
testu labur batekin:
erredakzioa@alea.eus**

Euskararen erabilerari oztopoak Eusko Jaurlaritzan

YOLANDA VIADERO, IMANOL SAN PEDRO, SAIOA UGARTE, MAIDER IRIZAR, TXEKOS LEGORBURU, JJ AGIRRE ETA SAIOA YUS

LAKUAKO ELA SINDIKATUAREN BERDINTASUN LANTALDEKO KIDEAK

Igaro den otsailaren 28an genero-berdintasunaz saio bat antolatu genuen Lakuan; langile guztien hizkuntza eskubideak bermatze aldera, aldibereko itzulpen zerbitzua eskatu genion Hizkuntza Politika Sailburuordetzari, eta HPS-k baietz... Alabaina, Jaurlaritzako beste egitura boteretsuago batetik zangotraba egin ziguten.

Debekutik debekura: Lan Harremanetako Zuzendaritzak debekua ezarri zigun, argudiatuz Lakuan ezin genuela egin "prestakuntza sindikal saiorik".

Debekuaren aurrean, "prestakuntza saioa" ez, baina "langile-batzarra" egiteko baimena eskatu genuen premiaz, eta horretarako baimena eman zigun ostera (batzar-ordu mugatuen kaltetan, hain zuzen). Alabaina, itzultzaileak gurekin harremanetan jarri ziren hurrengo egunean, harrituta, euren parte-hartzea bertan beheara geratzen zela ohartarazi zietelako HPS-tik.

Antolatzaileok artean ez genuen beste debeku horren berririk, baina HPS-ra deituta, erantzun ziguten aldibereko itzulpen zerbitzua eskuratzeko



TRABAK JARTZEN
BAZAIZKIGU, ZELAN GURA
DU EUSKARAREN
ERABILERA NORMALIZATU?"

debekua ezarri ziela Lan Harremanetako Zuzendaritzak.

Jaurlaritzak euskaltzaleoi zangotraba? Lan Harremanetako Zuzendaritzari luzatu genion debekuaren zergatiaz galdera, baina ez digute erantzun oraindik.

Euskararen erabileran urratsak (aurrera) egiteko prest gauden erakundei, lagundu barik trabak jartzen bazaizkigu, zelan gura du Jaurlaritzak euskararen erabilera normalizatu?

Jaurlaritzan zeharkakoak dira genero-berdintasuna eta euskararen normalizazioa? Genero berdintasuna eta

euskararen erabileraren normalizazioa zeharkakoak balira, oztopoak barik, laguntza eta babesas jasoko genituen Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Tamalez ez da horrela izan.

Martxoaren 8ko mobilizazioetan parte hartzeko deia egin zuen Eusko Jaurlaritzak, lehenago Euskaraldia sustatzera deitu zuen legeaz, baina genero berdintasunaren alde euskaraz egitekoa zen saio bati babesas eman ordez oztopoak jarri dizkigu bata bestearen atzetik.

Oso kezagarria iruditzen zaigu jazo dena, eta gertatutakoa salatzeaz gainera, gustatuko litzaziguke gure gutunak Eusko Jaurlaritzaren baitan hausnarketa eragitea. Elkarlanerako prest, beti ere.

BIDALI ZURE GUTUNA: erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.

ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.

Laburbira

Euskarazko film laburren XVI zirkuitua - 2019
Martxoaren 18tik apirilaren 17ra

www.topagunea.eus/laburbira



BEGI NINEN KOREOGRAFIA
Aritz Perdomo



SHELL PHONE
Miren Mujika



ZAPATAK
Irati Murua



AMA
Joia Martínez



JUNE
Aranza Ibarra



HOTZEAN GARBITU
Marta Ruiz de los Rios



ILUNPEAN
Iker Magoregi eta Andrea Martínez



ERROAK
Ane Zubiak



HANDIAK ETA TXIKIAK
Laida Ruiz

TOKIA:

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

EGUNA:

APIRILAK 3, asteazkena

ORDUA:

18:00

Eskatu zure sarrerak magirre@geuelkartea.eus helbidean

Gonbidapena izatea ezinbestekoa da

Antolatzaileak



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

Babesleak





UAGAk zuzendaritza-batzorde berria; Javier Torre lehendakariarekin. UAGA

Torre berretsi dute UAGAn

Zazpi gizonek eta emakume batek osatutako zuzendaritza-batzordea aukeratu dute Arabako sindikatu nagusia hurrengo lau urteetan gidatzeko; kontinuisismoaren alde egin dute lehen sektorean.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Javier Torre buru duen zuzendaritza-batzordea – zazpi gizonek eta emakume batek osatuta – aukeratu dute UAGA sindikatu gidatzeko hurrengo lau urteetan. Hala, 2015etik Torreren lantaldeak egindako lana berretsi dute lurraldeko abeltzainek eta nekazariak, eta Erriberabeitiko nekazariaren taldeak beste lau urtez zehaztuko ditu lehen sektoreko Arabako sindikatu nagusiaren lehentasunak.

UAGAk lehendakaritza okupatzeko aurkeztu ziren beste bi hau-

tagaiek ere boto kopuru handia lortu zuten asteartean Gasteizen ospatu zuten batzar orokorrean: Luis Zaballak 86 boto jaso ditu, eta Cesar Izar de la Fuentek, berriz, 75. Estreinakoz, hiru hautagaien artean aukeratu behar izan dute botoa ematera animatu diren

TORREK BOTOEN %40 LORTU DU, ZABALLAK %32 ETA IZAR DE LA FUENTEK %28

lurraldeko 268 nekazariak, eta lehia estua izan da: Torrek botoen %40 lortu du, Zaballak botoen %32 eta Izar de la Fuentek %28. Guztira, UAGA sindikatuak 1.270 afiliatu ditu.

Lehendakaritza berretsi eta gero, Torrek konpromisoa hartu du 2015. urtean hasitako bidearekin jarraitzeko, eta erronka nagusietan sakontzeko garaia dela azpimarratu du: "Berriro, Arabako lehen sektorearen erreferentzia izatea, errespetua berreskuratzea, gizartearen zein instituzioen babesa lortzea, eta gizartearekin zein afiliatuekin komunikazioa hobetzea".

UAGAk lehendakaria aukeratu duten batzar orokorrean, sindikatuaren aurrekontuak ere onartu dituzte. 2018. urtea 7.520 euroko superabitarekin itxi dute, eta aurreko 858.927 euroko sarre-ak aurreikusi dituzte eta 893.624 euroko gastuak. "Galera txikiagoa izatea espero dugu, baina hobe da zuhur jokatzeko", azaldu dute sindikatutik.

Kezka iturri da airearen kalitatea

EH Bilduk eta Equo Berdeak ohartarazi dute otsailean, Gasteizen, airearen kutsadura maila altuak jaso zirela, eta Udalari neurriak har ditzan exijitu diote; besteak beste, ordenantza bat onartzea nahi dute.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Gasteizek aire kutsaduraren muga guztiak gainditu zituen otsailean. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak jaso dituen datuen arabera, OME Osasunaren Mundu Erakundeak ezarritako PM10 eta PM2.5 partikula balioen mugak aise gainditu ditu Arabako hiriburuak sei egunetan.

OMEaren arabera, PM10 partikularen muga, 24 orduko epean, 50 mikrogramo metro kubokoa izan behar da. Alta, otsailaren 21etik 25era, 49 eta 67 mikrogramo artean neurtu ziren, Eusko Jaurlaritzak Gasteiz Etorbidean duen neurgailuan.

"Martxoan gaude eta OMEk urte osorako ezarritako mugak gainditu ditu Gasteizek", azpimarratu du EH Bilduko zinegotzi Aitor Miguelek aste honetan. Talde abertzaleak gasteiztarrek pairatzen duten "aire kutsadura" salatu du, eta iragarri du mozioa aurkeztu dutela hil honetan eztabaidatu eta Udalak hainbat neurri har ditzan.


EH Bilduk gogoratu du OMEaren arabera, airearen kutsadura mundu mailako heriotza eta gaixotasun jatorri ezberdinen artean nabarmenetakoa dela. "2016ko kalkuluen arabera, 4,2 milioi pertsona hil ziren airearen kutsaduraren erruz".

Hortaz, airearen babeserako udal ordenantza bat onartzea eta airearen kalitate txarrari aurre egiteko protokolo bat garatzea da EH Bilduk eskatu dituen neurri nagusiak; eta gogoratu du 2010. urtetik udalerriko airearen kalitatea kudeatzeko plana ez dela berritu. Halaber, Udalak 2017ko eta 2018ko Airearen Kalitatearen Memoriak argitaratzeko eskatu du zinegotziak.

Protokoloa

Equo Berdeak taldeak ere otsailaren amaieran ohartarazi zuen airearen kutsaduraren arazoaz. Gasteizko udal gobernuari lanean "lehenbailehen" hasteko exijitu dio talde ekologistak, eta airearen kalitateari buruzko protokolo bat martxan jar dezan ere eskatu dio, beharrezko informazioa jasotzeko eta arazoari aurre egiteko neurriak hartzeko.

"Ezinbestekoa da gizakien osasunean partikula kutsakorrek eragiten dituzten kalteak azpimarratzea; arnasketako gaixotasunekin lotuta daude, baita gaitz kardiobaskularrekin ere", adierazi dute.



Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak neurtutako datuak. EUSKO JAURLARITZA



Aita Pauldarren eraikineran eraman nahi dute Haur eta Lehen Hezkuntza, baina lanak ez dira oraindik hasi. ALEA

Hamarkada batez korapilatuta

Zuiako ikastetxe berriaren proiektua martxan jartzeko orduan Hezkuntza Sailak orain arte erakutsitako jarrera kritikatu du Udalak. Lizitazioa aurtan izatea espero badute ere, data zehatzik ez dago.

JUANMA GALLEGO ZUIA

Hamar urte baino gehiago darazmatza tratatuta Zuiako ikastetxearen auziak, eta horrek "ezin-gona eta etsipena" eragin du udalerrian, Udalak aste honetan salatu duenez. Gaur egun Murgia Sagasti kaleko eraikin batean dago Virgen de Oro ikastetxea, eta bertan eskaintzen dituzte Haur eta Lehen Hezkuntza.

Udalak zein herriko hezkuntza-komunitateak behin baino gehia-

gotan salatu dute instalazioen "egoera kaxkarra". Tartean, hainbat eskola barrakoitan eman behar dituzte, eta gaur egungo legediak ezartzen dituen irisgarritasun baldintzak ez dira betetzen. Horrek hainbat arazo ekarri ditu. Duela hainbat hilabete, esaterako, istripu baten ondorioz gurpildun aulki baten beharra zuen ikasle batek arazoak izan zituen klasera joateko, lehen pisura igozteko igogalurik edo bestelako

biderik ez dagoelako egungo eraikinean.

2007an egin zituen Udalak gaia konpontzeko lehen eskaerak, eta bi urte geroago Jaurilaritzak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzara bideratutako ikastetxe berria eraikitzeke konpromisoa hartu zuen. Zeregin horretarako, Jaurilaritzak 8,5 milioi euroko inbertsioa agindu zuen orduan. Udalak, bere aldetik, ikastetxe berria eraikitzeke beharrezkoa zen lur saila erosi zuen, ondoren Hezkuntza Sailera lagatzeko asmoarekin.

Hiru milioi euro

Hamar urte pasa dira lehen akordio horretatik, eta bihurgune ugari izan ditu aferak. 2014an, Jaurilaritzak ikastetxe berria eraikitzeari uko egin zion, eta, horren orde, egungo ikastetxea konponduko zuela esan zuen. Horrek irisgarritasun eta espazio arazoak konpontzen ez zituelakoan, urtebete geroago Udala eta Hez-

ZUIAKO UDALAK ASTEON ADIERAZI DU JAURLARITZAK HITZA EZ DUELA BETE, "MODU SISTEMATIKOAN"

kuntza Saila beste akordio batera iritsi ziren, Haur eta Lehen Hezikuntza Aita Pauldarren ikastetxera eramateko –orain bertan dauke Bigarren Hezikuntza eta Lanbide Heziketa–. Halere, egoerak bere horretan jarraitzen du, Zuiako Udalak egin duen salaketaren arabera.

Astelehenean ohar gogorra kaleratu du Udalak, egoera salatuz. Hezikuntza sailak udalerria "gaizki tratatzen" duela adierazi dute bertan. Bereziki, Olatz Garamendi kontseilariordearen jarrera salatu dute. "Hamar urte baino gehiago daramagu salatzen Virgen de Oro ikastetxean dagoen espazio falta eta irisgarritasunaren arloan dauden gabeziak".

Orain arte Zuiak gaiaren bueltan hiru milioi euro inbertitu dituela adierazi du Udalak. "Gure tamainako udalerri batentzat izugarritz-



Irakasleek eta gurasoek ekimen ugari egin dituzte, ikastetxe berria eskatzeko. ALEA

ko ahalegina suposatzen du horrek. Zuiako urteko aurrekontuaren parekoa da hau". 2019ko aurrekontua 3,3 miloi urtekoa dela gogorarazi dute.

Hamarkada honetan "aterabide bat lortzeko" lanean egon direla dio Udalak, baina, honen aurrean, Hezikuntza Sailak "hitza ez duela bete" diote, "modu sistematikoan".

Gauzak horrela, eta egoera bideratzeko asmoarekin, asteazkenean beste bilera egin dute Hezikuntza sailburuordearekin. Zalantzak eta itxaropena agertu ditu Zuiako alkate Unai Gutierrezek bileratik aterazeaz.

"Orain arte ezagutzen ez genituen datuak ezagutu ditugu orain, eta horrek sentazio positiboa eman digu, baina ez da lehen aldia hau gertatzen zaiguna. Beste kontu bat da, gainera, orain sortu zaizkigun agabune berri hauek betetzeko zenbat denbora behar duen".

Alkateak argitu duenez, Jaurlaritzak Aita Pauldarren eraikinean egin behar diren lanetarako ikastetxeetako zuzendaritzen ekarpena jasoko dutela agindu die, eta orain arte hezikuntza komunitateak mahai gainean jarritako beharrak jaso dituztela ere. Data zehatzik ez diete eman, baina aurten egin behar diren lanetarako lizitazioa ateratzea eta esleitzea espero dute.



Lizarralde soinoa
TXALAPARTA S.L.

Audio Profesionala, Megafonia.

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ

ESANAK



ELENA MORENO
EAEKO INGURUMEN SAILBURUORDEA

"Barrongo urtegia, ingurumenaren aldetik, ez zait gehiegi gustatzen"



MARIASUN SAENZ DE SAMANIEGO
ARDOAREN IBILBIDEAREN GERENTEA

"Gastatzeko gaitasuna duen turista erakartzea da Arabako Errioxaren helburua"



ZURIÑE RODRIGUEZ
ARRAZAKERIAREN AURKAKO PLATAFORMA

"Arrazismoa inpunitatez praktikatzen dutenen aurrean jarri behar gara"

ZENBAKITAN

Litroak

Marka guztiak hautsita, 90.000 litro oliba olio baino gehiago ekoitzi dituzte 2018. urtean Arabako Errioxan. Denera, 440.000 kilo jaso dituzte aurten. Moredako La Equidad dolarean, adibidez, iazko 150.000 kiloan aldean, 201.000 jaso dituzte aurten. Horietatik 6.000 kilo erabili dituzte olio ekologikoa eta Eusko Label olioa egiteko. Norbere kontsumoak eta zuzeneko salmentak uztaren zati handi bat hartuko dute: 170.000 kilo. Lantziego herrian, berri, dolare berri bat ireki dute aurten, Arroiz, eta aurreikuspen guztiak gainditu ditu: kanpaina amaieran 70.000 kilo jasoak zituen dagoeneko.

90.000

10

Urteak

Bibat museoak hamargarren urteurrena ospatuko du hilabete honetan. Hala, Arkeologia eta Fournier Karta museoek hamar urteko ibilbidea nabarmentzeko hainbat hitzaldi, bisita, lantegi eta kontzertu antolatu dituzte. 32.865 bisitari jaso zituen 2015ean, eta 60.000 bisitari izateko hurbil geratu da 2018an. Arabako Foru Aldundiaren baliabide turistikoaren eta kulturalen artean, Artium museoa, Gatz Harana eta Santa Maria Katedrala baino ez ditu aurretik.

47,2

Kiloak

Gorbeia eta Aizkorri-Aratz parke naturaletan, Arabako zatian, zaborra jasotzeko auzolana egin dute hainbat herritarrek, Libera ekimenaren barruan. Aizkorri-Aratz Parkeko Lezeko piknik-gunean 15,8 kilo zabor jaso dituzte eta Gorbeiaiko Parke Naturalaren Zaldibartxoko bidean eta Igatseko larreetan, berri, 31,4 kilo zabor jaso dira. Libera egitasmoa 2017an sortu zen, naturan botatako zaborraren kalteak murrizteko, eta SEO/BirdLife taldeak bultzatzen du.

Polemika piztu du San Prudentzio eta Estibalizko kartelak

Sare sozialetan polemika piztu du herrialdeko jaiak iragartzeko kartelean *San Prudentzio eta Estibalizko Jaia* goiburuen ordez, *Arabako Jaiak* jaso delako. Arabako patroien izenak desagertzea salatu dute hainbat txiolarik; beste batzuek, ordea, aldaketa babestu dute. Dani Urraca ilustratzaile gasteiztarra izan da lehia-ketaren garailea.



Arabako jaien kartela. AFA.

Tabernetan kontzertuak antolatzeke muga kendu dute Gasteizen

Udal araudian jasotako baldintzak –edukiera, ordutegia eta zarataren ingurukoak– betez gero, kontzertuak eta ikuskizunak egiten jarraitu ahalko dute Gasteizko tabernetan, Udalak bertan behera utzi baitu Eusko Jaurlaritzak onartu zuen muga orokorra. Hala ere, musika eta antzerki-ikuskizunak aldeztu aurretik jakinarazi beharko zaizkio Udalari.

Sasetako elizaren egoera kezkarriaz ohartarazi dute

Trebiñuko Saseta herriko San Esteban eliza egoera kezkarrian dago. Teilatuan zulo handi bat du eta erortzeaz dago; gainera, azken urteetan, espoliazio handia izan da eraikinean. Hispania Nostra ondarearen babeserako elkarteak ohartarazi du elizaren egoeraz, monumentuen zerrenda gorrian sartu baitu. Gasteizko Gotzaindegiak hesi bat jarri du eliza inguratzeke, eta arriskua ekiditeko.

Saharako haurrak hartzeko familia gehiago behar dira

Aldundiak, Gasteizko Udalak, Afanisek eta Euskadiko Frente Polisarioaren Ordezkaritzak familiei dei egin diete, uda honetan Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako haurrak euren etxeetan hartzeko. Aurreikusten dute, aurten, haur askok parte hartuko dutela programan, eta, ondorioz, horiek hartzeko prest dauden familia gehiago behar dira.

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
 Learning from reality 2018/19

Bizitza errealeko arazoak aurre egiten jakitea ezinbestekoa iruditzen zait, eta unibertsitateak horretarako aukera ematen dit.

leire Martinez de Santos Diez
 Beasain. Informatikako Ingeniaritza. 3. maila.

INGENIARITZAK
ARRASATE MARTXOAK 27
 ASTEAZKENA 17:30
GOIERRI MARTXOAK 28
 OSTEKUNA 17:30
ORONA IDEO MARTXOAK 30
 LARUNBATA 10:30

HEZKUNTZA
ESKORITZA MAIATZAK 11
 LARUNBATA 11:00
KOMUNIKAZIOA
ARETXABAETA MAIATZAK 11
 LARUNBATA 11:00

GASTRONOMIA ZIENTZAK
 — Basque Culinary Center
DONOSTIA MARTXOAK 23
 LARUNBATA 10:30

EKINTZAILETZA, ENPRESA KUDEAKETA
OÑATI MARTXOAK 23
 LARUNBATA 11:00
BIDASOA MARTXOAK 28
 OSTEKUNA 18:00
BILBO MAIATZAK 2
 OSTEKUNA 18:00

Etorriko zarela jakinarazi!
 902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

"Lan lasaia izan behar zuena, izerdi eta pasio bihurtu da"

XABI BANDINI MUSIKARIA



Agertokietara bueltan dator Xabi Bandini, bakarlari gisa. MIRIAN BITERI

A. AMENABAR/ M.UGARTE

Kerobia musika taldearekin egin zen ezagun. Ostein, tarte labur batez, Antikontinente taldearekin izan zen taldekide berdinekin. Eta azkenaldian, berriz, bakarlari moduan dabil Xabi Bandini musikaria, *Begibakar* diskoa eskuetan. Isilune tarte baten ostean, Madrilera joan zen gazte iruindarra eta han konturatu zen ahotsa, gitarra eta sintetizadore batekin nahikoa zuela berriz ere kankak sortu eta hunkitzeko, apaingarri gutxiarekin.

Madrilgo 29 metro karratuko pisu batean sortu eta grabatu zenuen diskoa, ezta?

Bai, hala da. Orain dela urte eta erdi inguru, Madrilera jaitsi nintzen lan egitera eta nire pisu txiki horretan hasi nintzen kankak egiten, eta berriro ere nire burua hunkitzen. Gutxinaka, nahi izan gabe ere, gorpuztuz joan da proposamen bat, disko bihurtuko dena, *Begibakar* deituko dioguna; eta gainera, azken hiru hilabeteotan beste transformazio bat izan duena zuzenekoetarako. Laburbilduz, Xabi Bandini berriro sartu da

nahi gabe musikaren munduan lanean, eta taula gainean.

Nor da *Begibakar*?

Behin, kankak egiten hasi nintzenean eta lana aurkezteko erabilitako abestia egin nuenean, pertsonaia bat etorri zitzaidan burura, gizakia ez zena ez eta piztia ere; erdibideko zerbait zen. Horri *Begibakar* deitu nion; batek *Tartalo* dei diezaioke edo besterik gabe, begi bakarra duena edo begia galdu duena. Diskoaren kanta ezberdinetan pertsonaia honen historia bat kontatzen da. Ez da disko kontzeptual bat hau, baina badago istorio bat eta pertsonaia bat.

Azalean, besteak beste, bisonte bat ageri da...

Hala da. Gizona gizaki bezala eta bisonteak pizti bezala imajinatzen ditut. Momentu zehatz batean, batak besteari begiratzen diote; bisonteak pentsatzen du bera animalia bat baino ez dela eta planeta honetan ez duela misio zehatzik, eta gizakiak, bitartean, bera desagertuko den gogoeta egiten du. *Begibakar* erdibidean geratzen da.



Urteak bete zituen Xabi Bandinik pasa den ostiralean; Legutioko kultura etxean elkartu zirenekin ospatu zuen nafarrak. M.B.

Etaparen honetan, nolakoak dira kanten letrak? Sakonagoak, agian?

Ez. Kerobia jarraitzen zutenek badakite beti gizakiaren pasioaz hitz egiten genduela: beldurrak, pozak, desioak... pertsonaien istorioak kontatzen genituen. Disko honetan hori ere badago, baina transzendentziaren begirada gehitu nahi izan diot. Hau da, letretan pasioa, beldurra eta bestelakoak daude, eta hori inportantea da, baina badago zati bat horren garrantzitsua ez dena eta azpimarratzen duena. Lan honetan ekarpen hori oparitu nahi izan dut, lasaitasun handiagorekin.

Erdaraz ere badituzu bi kanta. Zerk eraman zaitu horretara?

Madriren nago eta gogoia nuen; eta publikoa zabaltzeko aukerarekin ere egin dut. Saiakera egin dut. Euskaraz gauza batzuk kontatu ditzakezu, eta gaztelaniaz beste batzuk; hori badago joko bat. Gainera,

erlaldun batek bere buruari galdetu diezaioke ea zer esan nahi duen istorio horrek euskaraz; misterio bat dago hor, eta niretzako, euskara, berez, misterioa da.

Nolakoak izan dira orain arte eskainitako kontzertuak?

Diskoa etxean grabatu dut nik neuk. Oso disko laua da: gitarra bat, ahotsa, sintetizadorea eta listo. Diskoa plazaratu nuenean Kerobiakoei esan nien ni aurrera nindoala musikarekin eta ea norbait nirekin etortzeko asmoa ote zuen. Alberto Isabak, baxu-jolea zenak, altxatu zuen eskua. Orduan, berriro hasi ginen disko berriko kantak moldatzen eta baita Kerobiarenak eta Antikontinenterenak ere. Gutxinaka, formatu berrira aldatu genuen, elektronikoagoa eta dantzagarriagoa egiten. Otsailaren lehen disko berriaren lehen kontzertua aurkeztu genuenean, kontzertu

elektroakustiko bat aurkeztu genuen, oso dantzagarria eta energetikoa. Hau da, gauza lasai bat izan behar zuena, bat-batean, berriro ere, izerdi, pasio eta gogo bihurtu da. **Ezin duzu horretatik ihes egin...**

Behin erritmoa hartuta, gustua ematen du. Kerobiarekin ere oso gustuko genuen izerdi horiek, eta berreskuratu ditugula uste dut. Gainera, jendeak eskatu dizkigun abestiak berreskuratu ditugu; eraldatu ditugu modu elektronikoago batean kontzertuetan eskaintzeko. **Kerobia zaleak pozik uzteko, orduan...**

Jendeak eskatzen dizunean zergatik ez duzun kantu hori jotzen zergatik ez eman plazer hori, ez? Ostiralean Legution eskainitako kontzertuan hori eskaini genuen, eta martxoaren 28an, Gasteizen Falerina tabernako emanaldi horretan berdina egingo dugu. ■■■

Gazte pelikula onenaren bila

Abenduan Gasteizen izan ostean, Aiaraldera zabalduko da orain Gaztefilm Fest; Laudio izango da jaialdiaren hurrengo geltokia: hilaren 22tik 24ra bitartean egingo dute pelikula laburren eta luzeen lehiaketa.

MIRIAN BITERI LAUDIO

Gazte eta haur zinema izango da nagusi egunotan Laudion, Gaztefilm Fest jaialdiari esker. Bi sail ofizial izango ditu ostiraletik igandera egingo den ekimenak: hain zuzen, film laburrenak eta luzeenak. Gazte Film Fest sariagatik lehiatuko dira, publikoaren botoari esker.

Bertan eskainiko diren pelikula laburren hautaketa Laudioko institutuko eta ikastolako ikasleek egin dute. Horrekin lotuta, jaialdiaren aurkezpenean, Helena Gonzalez antolatzaileak azpimarratu du horren helburua dela gazteak "parte aktiboa" izatea. Kasinoak hartuko du sari banaketa igandean, hilak 24, 20:00etan.

Filmak ikusteko aukera izateaz gain, lehiaketatik kanpoko pelikulen proiektzioak, kontzertuak, tailerrak eta

hitzaldi bat ere eskainiko dituzte jaialdian. Guztira, hogeitazentzatik gora; tartean, Zazpi t' erdi kolektiboak zuzeneko ikuskizuna aurkeztuko du, eta Kepa Sojo eta Esti Urresolak estilo eta belaunaldi ezberdinak, *Foco Llodio* atalean.

Ekintzak sei gunetan

Denera, sei izango dira parte hartuko duten espazioak: Laudioko zineman luzeak eta laburrak ikusi ahaliko dira; kultura etxeak, berriz, film laburrak eta hitzaldia hartuko ditu; Sorgin tabernak, proiektzioak; Gaztelekuak, lehiaketaz kanpoko film laburrak; eta Kasinoak, azkenik, ikastaro eta ekintza bereziak.

Zinemako eta Kasinoko ekintzek bi euro balioko dute, eta sarrerak bertan erosi ahal izango dira. Bestelako ekimenak debalde dira. ■■■

Egitaraua

22, ostirala

• Zinema:

Guarda in Alto (17:30).
Les Météorites (19:30).
La via flotante (21:00).
The Florida Project (22:00).

• Kultur Etxea:

Foco Llodio (18:30).
Bakardadeak (19:30).

• Gaztelekuak:

Animazio tailerra (18:30).

• Sorgin:

Periferikoa (19:30).

• Gaztetxea:

Inaugurazio festa (23:00).

23, larunbata

• Zinema:

Bakardadeak (11:00).
Joan etorriak (16:30).
Zazpi T' erdi (19:30).
Young & Beautiful (21:00).
L'atelier (22:00).

• Kultur Etxea:

Iñaki Sagastume (12:15).

• Sorgin taberna:

Periferikoa (19:30).
Jai Periferikoa (23:00).

24, igandean

• Zinema:

Foco Llodio (12:00).
Joan etorriak (16:30).
As Duas Irenes (17:00).

• Kasinoa:

Fragments de un espacio infinito (19:00).
Sari banaketa eta amaiera festa (20:00).



'Foco Llodio' atalean, Kepa Sojo eta Esti Urresolaren lanak aurkeztuko dituzte. KEPA SOJO

Depedro

MUSIKA



IGOR MUÑOZ

MUSIKAZALEA

A skok ezagutzen dugu Depedro proiektu musikala. Baina ba al dakigu nor den bere atzean dagoen arduradun Jairo Zavala?

Aste honetan Gasteizen izango dugu, eta merezi du ospera iritzi aurretik musikagile nekaezin honek egindakoak goraiatzeari, bere ibilbide profesionala ez baita hedabideetako lehen planora egun batetik bestera heldu den horietakoa, ezta gutxiago ere.

Jairo Zavala Madrilgo Aluche auzoan jaio zen, 1971. urtean. Langile-auzo batekoa izanik, gaztaroa *movida*-ren eraginpean baino, heavy eta punk giroak bideratu zituen bere gustu musikalak; baita, berak aitortu bezala, Euskal Herriatik heldutako rock erradikalak ere.

95. urtean, auzokidez lagunduta sortu zuen bere lehen talde inportantea: La Vacazul. Bost disko grabatuta, eta nolabaiteko ospea lortuta, Estatu espainiar osotik ibili ziren rock elektriko bizia banatzen. La Vacazuleko taldekideez lagunduta ere, 3000 Hombres izeneko talde paraleloa osatu zuen; musika beltzarekin (blues, soul, funk...) gozatu ahal izateko esparru musikala bilakatuz. Hala, sektorearen egoera ekonomikoak bultzatuta, sei banda ezberdinetan aritu zen Zavala garai batez. Aipatutako bietan, Zolo Zeppelin-en (Led



DEPEDRO

Zeppelin bertsioak egiten zituen taldean), Amparanoian eta telebistako El Club de la Comediak eta Manel Fuentesek zuten bandetan. Tarteka, baita ere, Los Coronasekin jo zuen.

Egoera hura jasangaitza zen. Zavalak 37 urte zituen eta gorputzak bizi erritmoa lasaitzea eskatzen zion. 2008an Depedro proiektu pertsonalari ekitea erabaki zuen, arrakasta handiz gainera. Lehenengo diskoa *Depedro*, Kaki Arkarazo lazkaotarraren ekoizpena eta

Calexico taldearen laguntzarekin Arizonan grabatu zuten. Eraitza musika estilo ezberdinen fusioa: basamortuko rock soinu frontierizoa, pop-a, runba, son kubatarra...


Zavalaren proiektu pertsonala izanik, haren bizipenekin eta izaerarekin batera eboluzionatzen joan da. 2010ean *Nubes de papel* diskoaren kutsu intimistak argi utziko zuen bilakaera.

Orain, Depedroren hamarkada merezi bezala ospatzeko, bidean topatutako lagunekin elkarlanean diskoa grabatu du: *Todo va a salir bien*. Abesti bilduma hau izango da bandaz lagunduta oholtzaz oholtza eramango duena, baita Gasteizko Jimmy Jazz aretora ere, martxoaren 22an. ■

**DEPEDROREN
HAMARKADA
OSPATZEKO,
LAGUNEKIN DISKOA
GRABATU DU**

Soportilla zaharraren itzala

GURE BAZTERRAK



Santa Cruz del Fierro

Kuadrilla: Añana.

Udalerrria: Berantevilla.

Biztanleak: 50 (2018ko Eustaten datuen arabera).

Bitxikeria: Ehiza intentsiboko barruti bat dago herriaren inguruan, baita tiro-zelai bat ere.

ARGAZKIA: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Mijancas, Escanzana, Lacervilla, Lacorzanilla, Santurde, Tobera eta Berantevillarekin batera osatzen du Santa Cruz del Fierrok Berantevillako udalerrria. Guztira 485 biztanle soilik dituen lurralde zabala da, Burgosko mugan.

Herri txikia da Santa Cruz del Fierro. Hiru kale ditu mendi-bizkar baten inguruan eraikita, eta tontorrean San Andres eliza ageri da. Tenpluaren sarreran burdinazko gurutze handi bat dago, hain zuzen azken mendeetan herriari abizena eman dion elementua. Alta, herriaren jatorrizko izena beste bat ei da. "Santa Cruz de Soportilla irakurtzen da, demagun, Tomas Lopezen mapa batean (1769)".

Besteak beste, Henrike Knörrek jaso zituen Berantevilla eta Soportilla izenen inguruko erreferentzia historikoak, eta 2006. urtean Euskaltzaindiko Onomastika Ba-

tzordeak Ziordian egin zuen batzar batean aurkeztu zuen eginko azterketa. Horretan nabarmentzen zuen Soportilla Arabako eskualde zahar bat dela.

Gerora, Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzainak Berantevilla toponimoen azterketa historiko-linguistikoa jaso zuen, baita ere, XVIII. mendeko hainbat

idazkitan Santa Cruz de Soportilla izena zuela herriak, eta XIX. mendearen erdialdera arte, bederen, ez zutela izena aldatu. *Fierro* elementua, beraz, "nahiko elementu modernoa da", eta elizaren aurrealdean dagoen burdinazko gurutzearekin zerikusia du.

Ozioko eta Zabalateko gaztelu ikusgarrien artean dago Santa Cruz, luda ibaiaren ertzean, eta soroez zein txopo sailez inguratuta. Herritik mendi igoera polita dago Txulato izeneko mendira (946 metro), eta bertatik gazteluak ere bisita daitezke.

Iraganean, Berantevillan mahastiak zaintzen zituztela erakusten du Apaizaren Txabolak. Santa Cruz del Fierroko ipar-mendebaldeko lursail baten erdian dago txoza, eta aspal-di mahastiak zaintzen zituzten nekazariak aterpe gisa erabiltzen zuten. Arabako Errioxan txozak ohikoak baldin badira ere, ingurunean Apaizaren Txabola da gordetzen den mota honetako eraikin bakarra.



EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakzioa@alea.eus

Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak

Irabazleak:

Lisabö + Mursergorako sarrerak: Karmele Aguirre Oteiza eta Dani Vazquez.



6D ekografia Askabide Klinikari

Gasteizko Askabide Klinikaren eskutik 6D ekografia-saio baten zozketa antolatu dugu. Ekaina aurretik egiteko. Parte hartzeko, eman izena martxoaren 26a baino lehen.

ZOZKETAK

www.alea.eus/zorionagurrak



Bergoi Madernaz del Pozo Gasteiz

Zorionak aitaixo!! Zuk beste urte bat bizkarrera eta guk beste urte bat zutaz eta zurekin gozatzen!! Etor daitezela beste hamaika!! Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!



Garazi San Miguel Del Val Gasteiz

Etxeke sorginak bi urtetxo betetzen digu, segi horren alai eta kantari!!!



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Martxoaren 22tik 28ra

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Oskola

Gazte Sortzaileak bekaren inguruan jaiotako egitasmoa. Internet bidez zabalduko den musika saioa.

Ostirala 22, 20:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

LAUDIO Izate Faltsua

Bulkada egunaren barruan eskainiko dute kontzertua. Horiekin batera, Eztanda, Oharkabe eta DJ Pottors Destroyers taldeak arituko dira.

Larunbata 23, 21:00etan, gaztetxean.

GASTEIZ Unidad Alavesa

Lan berria aurkeztuko du Ataungo taldeak.

Asteartea 26, 20:30ean, Parralen.

GASTEIZ Xabi Bandini

Begibakar Tour.

Osteguna 28, 19:30ean, Falerina tabernan.

HAURRAK

GASTEIZ Urarekin esperimentuak

Urak eskaintzen dituen aukerak probatuko dituzte. 4-8 urte bitarteko haurrak.

Ostirala 22, 18:30ean, Zabalganeko gizarte etxean.

LAUDIO Sorgin Zapatuak

Koloretako basamortua egiteko eskulan saioa. Ondoren askaria izango da. 5 urtetik gora. Kirikiño taldearen eskutik.

Larunbata 23, 17:30ean, ludotekan.



ATARIA

GASTEIZ 'Txiki txef' saio gastronomikoa

Sukaldaritza saioa. Familian egiteko ekintza. 6-12 urte bitartean.

Ostirala 22, 18:00etan, Falerina tabernan.

GASTEIZ 'Nai malabarista'

5-12 urte bitarteko haurrentzat.

Igandea 24, 17:30ean, Mariturri eskolan.

GASTEIZ 'Kokito in England'

Aitor M. Vinagreten eskutik. Euskaraz eta ingelesez. 4-10 urte bitartean.

Asteazkena 27, 18:00etan, Iparralde gizarte etxean.

BERTSOLARITZA

MURGIA Bertso afaria

Onintza Enbeita eta Aitor Mendiluze bertsolariekin.

Ostirala 22, 21:00etan, Administrazio Batzarraren egoitzan.

ANTOÑANA Bertso afaria

Aroa Arrizubieta eta Izar Mendiguren bertsolariekin.

Ostirala 22, 22:00etan, zentro sozialean.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Soziolinguistika hiztegi txikia: hezkuntza'

Leire Diaz de Gereñu eta Naiara Berasategirekin.

Asteartea 26, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

AMURRIO 'Espedizio lasterketak'

Aaron Garmendiaren hitzaldia.

Asteartea 26, 15:30ean, AEK euskaltegian.

BESTELAKOAK

AÑANA 'Handia' pelikula

Ostirala 22, 18:00etan, liburutegian.

ARAMAIO Irakurle Klub Feminista

Rosalind B. Penfolden 'Ondo maite nazazu' izango dute solasgai.

Astelehena 25, 18:00etan, kultur etxean.



LA POLLA RECORDS

GASTEIZ 'La Polla Records' erakusketa

Orbain kultur elkartearen eskutik. Argazki, afixa eta artikulu bilduma.
Apirilaren 12ra arte, Orbain kultur elkartearen.

GASTEIZ Irakurle Kluba

Uxue Alberdiren 'Jenisjoplin' izango dute solasgai.
Osteguna 28, 19:30etan, Ignacio Aldekoa kultur etxean.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ Depedro

Ostirala 22, 22:00etan, Jimmy Jazzen.

GASTEIZ The Queers

The Mangles taldearekin batera.
Larunbata 23, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

GASTEIZ María Terremoto

XXI. Mendeko Flamenkoa zikloaren barruan.
Larunbata 23, 20:30etan, Hegoalde gizarte etxean.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'El precio'

Tristan Ulloa, Gonzalo de Castro, Eduardo Blanco eta Elisabet Gelabert.
Larunbata 23, 20:30etan, Principal antzokian.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Salud, deporte y nutrición'

Joseba Beloki, Eduardo Anitua eta Ainhoa Prietorekin.
Asteazkena 27, 19:00etan, Vital Fundazioaren aretoan.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Good Luck Algeria'

Farid Bentoumik zuzendutako pelikula.
Astearte 26, 19:00etan, Artiumen.

GASTEIZ 'Klima aldaketari aurre egitea' erakusketa

Pirinioetako espezie garrantzitsuen berri ematen du, bideo bidez.
Maiatzaren 5era arte, Atarian.

GASTEIZ 'Omako basoa'

Agustin Ibarrolaren artelan garrantzitsuenen argazki erakusketa.
Apirilaren 7ra arte, Montehermoso kulturunean.



MICHELIN

HIRIEN BILTZARRA

herritarrei irekia



martxoak 27-28-29

**Saskia Sassenek eta Gil Peñalosak hitzaldia,
bi erakusketa eta ingurumenari
buruzko zinema-erakustaldia**